



## ALKATETZAREN DEKRETUA

**IORITZ BERRA JUARISTI, ZALDIBIAKO UDALEKO ALKATEAK**, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85ko Legeko 21.1. artikuluan xedatutakoaren arabera,

### **IKUSIRIK,**

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako egonkortze-prozesuaren baitan epaimahaiak hartutako behin-betiko erabakia, hau da, azken kalifikazioen onespena:

Plaza/Lanpostua: Zaldibiako Udaleko Administrazio orokorreko eskalako administrari laguntzaile azpi-eskala. (2 plaza). Oinarriak: 2022/12/27ko GAO

- Epai mahaiaren bilera zenbakia: 2
- Eguna: 2024/03/13
- Lekua: Baliabide elektronikoen bidez
- Bertaratuak:
  - Epaimahaiburua: Pako Zubeldia Oruezabal
  - Idazkaria: Maite Lasa Altuna
  - Kideak: Arantxa Garmendia Mujika, Begoña Ayestaran Amondarain.
  - IVAPeko ordezkaria: Jon Ander Colombo Luloaga

Halaber, **ikusirik** zegokion epean ez dela alegaziorik aurkeztu, indarrean dagoen legediak ematen didan aginpidez baliaturik,

### **ERABAKI DUT**

Lehenengo: Azken kalifikazioak ontzat ematea:

MARIA JESUS GOROSPE GUEREÑU (100 PUNTU)  
MIKEL URTEAGA AZKUE (85,45 PUNTU)  
NAIARA OTAEGUI SAIZAR (29,21 PUNTU)

Bigarren.- 2 lanpostu daudenez, 10 egun balioduneko epea emango zaie lehen 2 postuetan dauden izangaiei destinoa aukeratzeko (betiere, aukeratzeko lehentasuna



ZALDIBIAKO  
UDALA

2022ILAK0003

lehengoak edukiko duelarik). Hala ere, hautagaiek besterik erabaki badezakete ere, epaimahai honek honako proposamen hau egiten dio alkateari:

- a) %60ko lanpostua (elkartuta Arama (%5), Alzaga (%2,5) eta Gaintzako (%2,5) udalekin): MARIA JESUS GOROSPE GUEREÑU (100 PUNTU)
- b) %50eko lanpostua: MIKEL URTEAGA AZKUE (85,45 PUNTU)

Hirugarren.- Destinoa aukeratzeko epea amaituta, behin-behineko zerrenda hobetsi beharko da alkate ebazpenaren bidez. Ebazpena Zaldibiako udalaren webgunean eta iragarki taulan argitaratuko da eta 10 egun balioduneko epea emango da erreklamazioak egin ahal izateko.

Laugarren.- Epea igarota, behin betiko zerrenda GAOn argitaratuko da. GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 20 egun balioduneko epean, lanpostua esleitu zaien izangaiek 14. oinarri orokorrean zerrendatzen diren agiriak aurkeztu behar dituzte. Dokumentu horiek egiaztatutakoan alkate ebazpenaren bidez praktiketako funtzionario izendatuko dira, eta ebazpen hori GAOn eta Zaldibiako udalaren webgunean eta iragarki taulan argitaratuko dira.

Bosgarren.- Ebazpena GAOn argitaratu eta hilabete bateko epean izangaiek lanpostua hartu beharko du eta 3 hilabeteko praktikaldia hasiko du.

Seigarren.- Praktikaldia amaitu eta txostena aldekoa bada, karrerako funtzionario izendatuko dira alkate ebazpen bidez. Ebazpen hau GAOn argitaratu beharko da eta baita udalaren webgune eta iragarki taulan ere.

Sinatzailea	ALKATEA IORITZ BERRA JUARISTI		
Kodea	B 24/0073	Udala	Zaldibia
URL	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/78/AAAA18C39.JxQD">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/78/AAAA18C39.JxQD</a>		
Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			

